

# Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza



## Proiektua

i.by2

## Egilea

Juanjo Leanizbeaskoa



Liburu honen salmentaren % 0,7 Chibuluma (Zambia), eskola bat eraikitzeko izango da. Eskola horren eraikuntza kudeaketaz SED (Solidaridad, Educación, Desarrollo) izena duen Gobernuz Kanpoko Erakundea arduratzen da.

**IBAIZABAL**



## **Aurkibidea:**

<b>1</b>	<b>SARRERA</b> .....	<b>4</b>
<b>2</b>	<b>IBAIZABALEN PROIEKTUA, HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZAN</b> .....	<b>4</b>
	<b>1.1. Ikasgaiaren helburua</b> .....	<b>4</b>
	<b>1.2. Beste ikasgaiekiko erlazioa</b> .....	<b>5</b>
<b>3</b>	<b>OINARRIZKO GAITASUNAK LORTZEKO HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZAK EGITEN DUEN EKARPENA</b> .....	<b>5</b>
<b>4</b>	<b>HELBURU OROKORRAK</b> .....	<b>6</b>
<b>5</b>	<b>EDUKIEN EGITURATZEA</b> .....	<b>7</b>
<b>6</b>	<b>GURE PROPOSAMENA</b> .....	<b>8</b>
<b>7</b>	<b>HELBURUAK, EDUKIAK ETA EBALUAZIOA (unitateka)</b> .....	<b>11</b>
<b>8</b>	<b>OINARRIZKO GAITASUNAK</b> .....	<b>19</b>
<b>9</b>	<b>PROPOSATUTAKO ARIKETEN ERANTZUNAK</b> .....	<b>23</b>
<b>10</b>	<b>KONPETENTZIAK</b> .....	<b>39</b>
<b>11</b>	<b>PROBA OBJEKTIBOAK</b> .....	<b>41</b>
<b>12</b>	<b>PROBA OBJEKTIBOEN ERANTZUNAK</b> .....	<b>48</b>

1

## SARRERA

**Herritartasunerako Hezkuntzak** etapa honen curriculumean berezko izaera du eta hezkuntzako helburuen nahiz jardueren barruan herritartasun demokratikoa sustatu nahi du. Izan ere, nazioarteko erakundeek hartutako ildoari jarraitu nahi dio. Europar Batasunak hezkuntza sistemen helburutzat ezarri du eskola komunitatean balio demokratikoen eta parte-hartze demokratikoaren balioen ikasketa benetan sustatzea, pertsonak herritartasun aktiborako prestatzearen, Europako Kontseiluko Ministro Kontseiluak emandako (2002) 12 Gomendioarekin bat. Bestalde, Espainiako Konstituzioak 1.1 artikuluan bizikidetasun sozialaren oinarri izan behar duten balioak aipatzen ditu: askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa. Halaber, 14. artikuluan, legearen aurrean guztiok berdinak garela ezartzen du, eta jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo bestelako inguruabar pertsonal eta sozialak direla-eta ez dela inolako bereizkeriarik egin behar.

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren curriculuma martxoaren 19ko 25/2007 Dekretuan dago, 2007/05/25 datarekin NAO n argitaratua.

Estatuak herritar guztiei gizarte batasuna sustatzen duten balio eta bertute zibikoen gaineko preskakuntza emateko daukan betebeharrari dagokionez, 27.2 artikulua honela dio: hezkuntzaren helburua nortasuna oso-osorik garatzea izanen da bizikidetasunaren printzipio demokratikoak eta oinarritzko eskubideak eta askatasunak errespetatzeko. Hori interpretatzerakoan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean eta gai berari buruz nazioartean sortu eta Espainian berretsitako itun eta akordioetan ezarritakoari jarraitu behar zaio.

Nazioarteko gomendio horiek eta Konstituzioaren agindua irakasgai honetako curriculumaren ardatz dira. Hezkuntza lanari esker, gazteek askatasuna, norbanakoen eskubide eta betebeharrak eta gizarte eskubide eta betebeharrak kritikoki, hausnarketa eginez eta pixkana onartu beharko dituzte, beste pertsona batzuk eta bestelako ikuspegi moralak, politikoak eta erlijiosoak errespetatuz. Gainera, eskola eta gizarte ingurunean herritarren eskubideak identifikatzen eta gizalegezko ohiturak lantzen badira, ikasleek gizarte kohesionatuak, libreak, aberatsak, berdintasunean oinarrituak eta bizidunak sortzen lagunduko dute.

2

## IBAIZABALEN PROIEKTUA, HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZAN

EAEn, Bigarren Hezkuntzan, Herritartasunerako Hezkuntza DBHn ematen da, gehienbat 2. mailan. Sarreran esan dugun bezala, helburuaren oinarrian sistema demokratiko bati dagokion herritartasun eragile baten sustapena dago, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aditzera eman zen moduan. Europar Batasunak eta nazioarteko hitzarmen eta akordioek ontzat eman eta indarrean jarri dituzte, eta NEFK bere egiten ditu.

Arlo honetan, Ibaizabal argitaletxeak **balioetan oinarritutako kalitatezko hezkuntzarekiko konpromiso** demokratikoa dauka. Gure ustez, Nafarroak kontuan hartu beharreko ezaugarri bereizgarriak ditu; horregatik, gure curriculum proposamenak aintzat hartu nahi ditu gizarte eta kultur mailako berezitasunak, baita hizkuntza mailakoak ere.

### 2.1. Ikasgaiaren helburua

Herritartasunerako Hezkuntzak ikasleari bizikidetzaren eta herritartasun demokratikoaren garapena lortzen lagunduko dioten prozedurak, giza gaitasunak eta oinarritzko jarrerak sustatu nahi ditu. Horretarako beharrezkoa izango da:

- Pertsona autonomo, libre eta arduratsuen garapena indartzea, autoezagutzaren eta autoestimaren bitartez.
- Unibertsalki onartuta dauden herritarren eskubide eta betebeharrak ezagutu eta balioestea, berezko bizi-egitasmo eta pentsamenduarekin batera jokaera pertsonal eta kolektiboak, eta giza errealitateak etikoki balioesteko gai egingo baikaituzte.

- Arauak, tradizioak, portaera kolektiboak eta jakintzagai arautuak kritikoki balioesteko gaitasunak eta jarrerak garatzea.
- Inguruneko proiektuak eta problematika ezagutu eta balioestea, gizarte askotariko eta globalizatua ulertu, eta bertan integratzeko.

## 2.2 Beste ikasgaiekiko erlazioa

Derrigorrezkoa denez, DBHk izaera integrala dauka eta gizarte demokratiko batean modu kritiko eta eraginkorrean parte hartzeko gauza izango diren herritarrak trebatu nahi ditu. Horrek ikasleari bere garapen integrala bermatuko duten ikaste-esperientziak eskaintzea eskatzen du, bere gaitasun intelektualak, fisikoak, sozialak, afektiboak, etiko eta moralak ere garatzen joan daitezen. Herritartasunerako Hezkuntzak hainbat arloren arteko ikuspegi kurrikularrari ekin nahi dio. Horrela, ikasleek errazago ulertuko dute eta, bestalde, lagundu egingo zaio ikaskuntza esanguratsuari.

## 3 OINARRIZKO GAITASUNAK LORTZEKO HERRITARTASUNERAKO ETA GIZA ESKUBIDEETARAKO HEZKUNTZAK EGITEN DUEN EKARPENA

Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzak eta Hezkuntza Etiko-zibikoak zuzeneko lotura dute gizarterako eta herritartasunerako gaitasunarekin, baina, gainera, oinarrizko beste gaitasun batzuen alderdi nabarmen batzuk garatzen laguntzen dute.

- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunari dagokionez, gaitasun horren barneko eremu pertsonal eta publikoa lantzen da: gizartean bizitzeko eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko trebetasunak eskuratzen laguntzen du. Pertsonaren autonomia, autoestimua eta nortasuna indartzeaz gain, parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gaitasunak garatzen dira, zenbait egoeratan jokoera egokia hautatzeko eta hartutako erabakien eta haien ondorioen erantzukizuna onartzeko gaitasunez gainera. Pertsonen arteko harremanak hobetzen laguntzen da, halaber, bakoitza bere pentsamenduez, balioez, sentimenduez eta ekintzez jabetzeko trebetasunak garatzen baitira. Sentimenduetan oinarritutako lotura pertsonalak bultzatzen dira eta gatazka egoerei aurre egiten laguntzen da, gatazka ebazteko sistematikoki elkarrizketa eta bortizkeriarik gabeko bestelako prozedurak erabiltzea proposatzen baita. Hezkuntza afektibo-emozionala, bizikidetasuna, parte-hartzea, aniztasunaren, bereizkerien eta bidegabeko egoeren ezagutza, horiek guztiak lagungarriak dira gizarte gaitasunak sendotzeko, sentimendu partekatuak eta ez-baztertzaileak sortzeko, bizikidetzarako gizarte arau eta hitzarmenak ezagutu, onartu eta erabiltzeko eta bai eremu pertsonalean bai sozialean errespetua, lankidetzeta, elkartasuna, justizia, indarkeriarik eza, konpromisoa eta parte-hartzea bezalako balioak barneratzeko.
- Halaber, gaitasun hori lortzeko lagungarria da estatuaren eta gizarte demokratikoen oinarriak eta antolaketa moduak ezagutzea eta berariazko beste eduki batzuk ikastea, hala nola, giza eskubideak historian zehar nola aldatu diren, eta gaurko munduan, batez ere gatazka dagoen lekuetan, eskubide horiek nola zehazten eta errespetatzen diren edo nola urratzen diren. Etapa honetan sartu diren eduki batzuk nazioarteko erakunde jardunari eta giza eskubideen eta bakearen alde diharduten mugimendu, erakunde eta indarren jardunari buruzkoak dira.
- Zuzenean laguntzen da gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren alderdi etikoa garatzen. Izan ere, ikasleek beren inguruko balioei antzematen diete eta, aldi berean, horiek ebaluatzen ahal dituzte eta horiekin bat etorritik jokatzeko ahal dute erabakiak hartzerakoan edo gatazkei aurre egiterakoan. Erreferentzia etiko orokorrak hauexek dira: balio unibertsalak, eta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean eta Espainiako Konstituzioan jasorik dauden eskubideak eta betebeharrak.
- Gizarte pluraltasunarekin, globalizazioaren izaerarekin eta globalizazioak herritarrei dakartzkien ondorioekin zerikusia duten edukiak berariazkoak direnez, ikasleei tresnak emanen zaizkie balio demokratikoekin bat datozen bizikidetasun arauak onartu eta erabiltzeko, eskubide eta askatasunak baliatzeko, herritarren erantzukizun eta betebeharrak beren gain hartzeko eta, azken batean, herritar gisa gizarteran aktiboki eta bete-betean parte hartzeko.

- Herritartasunerako hezkuntzaren bidez ikasten ikasteko gaitasuna garatzen da; izan ere, nor bere gaitasunez jabetzea sustatzen da hezkuntza afektibo-emozionalaren bidez eta adimenaren, emozioen eta sentimenduen arteko harremanen bidez. Era berean, geroko ikasketetan lagungarriak izanen dira gizarte trebetasunen estimulua, talde lanaren, parte-hartzearen eta argumentazioaren erabilera sistematikoaren sustapena, norberaren eta inoren ideien sintesia, eta ezagutza, informazio eta iritzien erkatze ordenatu eta kritikoa.
- Arloko prozeduretatik abiatuta norberaren autonomiarako eta ekimenerako oinarrizko gaitasuna lortzen laguntzen da, plangintzarako, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta erantzukizunak onartzeko ekimenak garatzen baitira. Curriculumean arreta berezia ematen zaie argumentazioari, norberaren pentsamenduaren eraketari, arazo bati buruz jarrera hartu behar den kasuen azterketari eta irtenbideen azterketari. Laugarren kurtsoko hezkuntza etiko-zibikoan dilema moralak aurkezten dira eta hori lagungarria da ikasleek beren irizpide etikoak eratzeko, balio eta praktika demokratiakoetan oinarrituak.
- Eztabaidaren erabilera sistematikoa lagungarria da hizkuntza komunikaziorako gaitasuna lortzeko, entzuten, azalpenak egiten eta argudioak ematen trebatzea eskatzen baitu. Bestalde, ezinbestekoa da sentimenduak, ideiak eta iritzia komunikatzea irakasgai hauen helburuak lortzeko; izan ere, ahozko nahiz idatzizko hizkuntza erabiltzen da eta iturri desberdinetako mezu esplizituak eta implizituak kritikoki baloratzen dira, bereziki publizitatean eta komunikabideetan azaltzen direnak. Horrela, gaitasun hori lortzen laguntzen da. Azkenik, gizarte gaiei dagozkien terminoak eta kontzeptuak ezagutu eta erabiltzeak hiztegia aberasteko bide ematen du.

Europar Batasunak egindako proposamenaren esparruan, eta azaldu diren gorabeheri jarraikiz, oinarrizko zortzi gaitasun hauek ezarri dira:

- a) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
- b) Matematikarako gaitasuna.
- c) Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna.
- d) Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
- e) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- f) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
- g) Ikasten ikasteko gaitasuna.
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

**4****HELBURU OROKORRAK**

Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza eta Hezkuntza Etiko-zibikoa irakasgaiak etapa honetan hurrengo gaitasunak garatzea izanen dute helburu:

1. Gizabanakoen eta gizartearen giza izaera hautematea eta nork bere nortasuna, ezaugarriak eta esperientziak onartzea; besteekiko desberdintasunak errespetatzea eta autoestimua garatzea.
2. Sentimenduak eta emozioak garatu eta adieraztea, baita komunikaziorako trebetasunak eta gizarte trebetasunak ere, taldeko jardueretan parte hartu ahal izateko jarrera solidario eta tolerantarekin; gatazkei aurre egiteko bitartekotza eta elkarrizketa erabiltzea.
3. Erantzukizunak onartuz norberaren ekimena garatzea, eta errespetuan, lankidetzan eta indarke-riaren, estereotipoen eta aurreiritzien arbuioan oinarritutako bizikidetasun eta parte-hartze moduak baliatzea.
4. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eta Espainiako Konstituziotik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak ezagutu, onartu eta positiboki baloratzea; eskubide horien oinarri diren balioak identifikatzea eta gizabanakoen nahiz taldeen jokabideak eta gizarte errealitateak etikoki baloratzeko irizpidetzat onartzea.

5. Gaur egungo gizartearen pluraltasuna identifikatzea eta aniztasuna onartzea bizikidetzaren aberas-teko bide gisa; pertsona ororen eskubide eta aukera berdintasunaren alde egitea; sexua, jatorria, sinesteak, gizarte desberdintasunak, joera afektibo-sexuala edo bestelako arrazoiak direla-eta egi-ten diren bazterkeriak eta bidegabekeriak gaitzestea, giza duintasuna urratu eta bizikidetzaren era-gozen dutelako.
6. Emakumeen eskubideak onartzea, sexu-desberdintasuna eta sexuen arteko eskubide-berdinta-suna baloratzea eta gizonen eta emakumeen arteko bereizkeria eragiten duten estereotipo eta au-rreiritziak errefusatzea.
7. Sistema demokratikoen, Espainiako Estatuaren eta Europar Batasunaren funtzionamenduak oi-narri dituen printzipioak ezagutu eta estimatzea; guztien ondareaz eta kultur nahiz gizarte aniz-tasunaz jabetzea.
8. Bizimodu demokratikoaren oinarriak ezagutzea eta bizikidetasunaren eremu desberdinetan horiekin bat jarduten ikastea. Guztien ondasunak mantentzeko herritarrek dituzten bete-be-harrak eta Estatuak zerbitzu publikoen bermatzaile gisa betetzen duen zeregina onartzea.
9. Bizitza politikoan parte hartzeak duen garrantzia baloratzea. Gauza bera egitea herritarrek parte hartzeko dituzten beste modu batzuei buruz (lankidetzaren, elkarteak, borondatezko lana etab.).
10. Giza eskubideen urratzeak, pobrezia eta desberdintasuna eragiten dituzten arrazoiak ezagutzea, baita gatazka armatuaren eta azpigarapenaren arteko lotura ere; bakea, segurtasuna eta parte-hartze aktiboa lortzea helburu duten ekintzak baloratzea, mundu bidezkoagoa lortzeko bitarteko gisa.
11. Nork bere burua herritar multzo global bateko kide gisa onartzea. Biztanle talde desberdinen bi-zimoduekiko eta ohiturekiko errespetu kritikoa adieraztea eta talde nahiz pertsona baztertue-kiko portaera solidarioak azaltzea.
12. Teoria etiko nagusiak identifikatu eta aztertzea, gaur egungo munduko gizarte gatazka eta gatazka moral nagusiak hautematea eta komunikabideen bidez transmititzen diren ereduaren aurrean jar-rerra kritikoa garatzea.
13. Pentsamolde kritikoa garatzea, eztabaidetan argudio dokumentatu eta arrazoituen bidez norbe-raren ikuspegiak defendatzeko irizpide propioa eta trebetasunak garatzea, eta besteen arrazoiak eta argudioak baloratzea.
14. Eskolako liburutegia nahiz informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea arloko gaiei buruzko lanak arrazoitu eta orientatzeko eta ezagutzak ikasi eta partekatzeko tresna gisa.

## 5 EDUKIEN EGITURATZEA

### 1. *eduki multzoa*. GUZTIENTZAKO EDUKIAK

- Argudio arrazoituen bidez norberaren iritziak eta usteak azaltzea eta besteen iritziak onartzeko gaitasuna izatea.
- Elkarrizketa erabiltzea gatazkei indarkeriarik gabe heltzeko estrategia gisa.
- Nork bere iritzi eta usteak azaltzea argudio arrazoituen bidez. Errealitatearen alderdi garran-tzitsuei buruzko eztabaidak prestatu eta egitea, errealitatea hobetzearen aldeko jarrera hartuta.
- Gaur-gaurko gertaera edo arazo bati buruz komunikabideek eskainitako informazioak aldera-tzea eta horien balorazio kritikoa egitea.
- Arlo honetako ikasketarako beharrezkoak diren hizkuntza trebetasunak lortzea: idatzizko eta ahozko testuak ulertzea, hiztegi berezia ezagutzea, ahozko eta idatzizko adierazpenak behar bezala erabiltzea etab.
- Idatzizko iturrietako informazioa ulertzea eskemen, grafikoaren, mapa kontzeptualen, laburpenen eta abarren bidez.

**2. eduki multzoa. PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK ETA PARTE-HARTZEA**

- Norberaren autonomia eta pertsonen arteko harremanak. Afektuak eta emozioak.
- Giza harremanak: gizon eta emakumeen arteko harremanak eta belaunaldien arteko harremanak. Familia Espainiako Konstituzioaren esparruan. Eguneroko bizikidetzan indarkeriarik gabeko jarrerak garatzea.
- Mendekotasuna duten pertsonak zaintzea. Baztertuak dauden ikaskideei edo gizabanako eta taldeei laguntzea.
- Lanaren gizarte eta sexu banaketari eta gizarteko aurreiritzi arrazista, xenofobo, sexista eta homofoboiei buruz balorazio kritikoa izatea.
- Parte hartzea ikastetxean eta gizarte solidarioa eta bidezkoa lortzen laguntzen duten gizarte jardueretan.

**3. eduki multzoa. HERRITARREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK**

- Giza eskubideen aldarrikapen unibertuala, nazioarteko itunak eta hitzarmenak. Giza eskubideen urratzeen salaketa eta auzitegi arrunten eta nazioarteko auzitegien jarduna. Giza eskubideak eta betebeharrak baloratzea osatu gabeko lorpen historikoak diren aldetik, eta konstituzioak ere baloratzea eskubideen aitopenearen iturri diren aldetik.
- Eskubide-berdintasuna eta aniztasuna. Herritarren aukera pertsonalekiko errespetua eta balorazio kritikoa.
- Emakumeen eskubideen konkista (parte-hartze politikoa, hezkuntza, lan ordaindua, tratua eta aukera berdintasuna), eta emakumeen egoera gaurko munduan.

**4. eduki multzoa. XXI. MENDEKO GIZARTE DEMOKRATIKOAK**

- Zuzenbidezko Estatua: funtzionamendua. Espainiako eredu politikoa: Espainiako Konstituzioa eta Autonomien Estatua. Politika herritarren zerbitzuan: erantzukizun publikoa.
- Gizarte eta kultur aniztasuna. Kultura desberdinen bizikidetzak gizarte pluralean. Desberdintasun pertsonal, ekonomiko eta sozialen ondoriozko bereizkeriak errefusatzeko.
- Guztien ondasunak eta zerbitzu publikoak identifikatu, estimatu eta zaintzea. Zergak eta herritarren ekarpena. Desberdintasunen konpentsazioa. Errentaren banaketa.
- Kontsumo arrazional eta arduratsua. Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak onartzea. Publizitate mezuaren eragina gizarte eredu eta ohituretan.
- Babes zibilaren egitura eta eginkizunak. Hondamendi naturalen eta eragindako hondamendien prebentzioa eta kudeaketa.
- Bide segurtasuna eta herritarren erantzukizuna. Zirkulazio istripuak: kausak eta ondorioak.

**5. eduki multzoa. HERRITARTASUNA MUNDU GLOBALEAN**

- Desberdintasunak dituen mundua: aberastasuna eta pobrezia. “Pobreziaren feminizazioa”. Hezkuntzarako sarrerarik ez izatea, pobrezia iturri gisa. Pobreziaren kontrako borroka eta garapenerako laguntza.
- Gatazkak gaurko munduan: nazioarteko erakundeen eta Espainiako indar armatuen eginkizuna nazioarteko bake-misioetan. Nazioarteko zuzenbide humanitarioa. Bakearen aldeko ekintzak, bakarkakoak eta taldekoak.
- Globalizazioa eta elkarrekiko mendekotasuna: komunikazio, informazio eta mugikortasun modu berriak. Herritarren, botere ekonomikoaren eta botere politikoaren arteko harremanak.

**6****GURE PROPOSAMENA**

Erreferentzia gisa bost eduki-bloke hauek hartuta, eta lehenak “eduki komunekin” zerikusia duela kontuan izanik, gure argitalpen proposamena 6 unitate didaktikoen arabera diseinatuta dago. Bloke tematiko bakoitzarentzat bat, baina ez ditugu beti kontuan hartu bloke tematiko baten eduki guztiak:



horrela, seigarren bloke tematikoa bi unitate didaktikotan banatu dugu. Bestalde, “eduki komunak” izeneko lehen blokea sei unitateetan zehar landu dugu, bakoitzean prozedura bat landuz.

Horrez gainera, esan behar da “Hezkuntza emozionala”ri dagokiona, batik bat curriculumaren bigarren blokean azaltzen bada ere, unitate guztietan landu dugula eta tarte berezia eman diogula, izan ere, gure ustez, adin honetan sentimenduen eta emozioen adierazpenak garrantzi berezia dauka.

Badago proposamenaren beste osagarri bat aipatu nahiko genukeena: ikasgaiari emandako denborarena hain zuzen, 30 saio inguru baino ez baitira urtean zehar. Horrek errealistak izatera eraman gaitu eta zenbait osagarri lehenestera beste zenbaiten gainetik, batik bat eduki asko 4. DBHko “Etika eta Gizabide Hezkuntza”n berriro landuko direla kontuan hartuta.

Beraz, adinaren arabera planteatu nahi izan ditugu curriculumaren edukiak, neska-mutilei hurbilago eta esanguratsuago izan dakizkien.